



414/2024 EBAZPENA, EKAINAREN 4KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN HISTORIA KLINIKOAREN ZERBITZUAN FAMILIA MEDIKUNTZAKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOA - LMAT LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN / ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAKO KALITATEKO ZUZENDARIORDETZAN.

LANPOSTUA: F.E. FAMILIAKO MEDIKUA – LMAT.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Kalitateko Zuzendariordetza, Historia Klinikoaren Zerbitzua.

Lanaldia: Zatitua (Araba).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE, derrigortasun-datarik gabe.

BETEKIZUNAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude). Guztientzat: Familiako eta Komunitateko FEM titulua

MEREZIMENDUAK:

Honako hau baloratuko da merezimendu gisa:

- Osakidetzan gaur egun erabiltzen diren informazio-sistema funtzionalak ezagutzea, batez ere Osabide Global Primaria, Osabide Global, Osabide Integra eta eraldaketa digitalaren barruko asistentzia-prozesuetako zirkuitu funtzionalak.

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo lan-legepeko langile finkoa izatea.

- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa den beste kategoria batekoa izatea.

- Ez izatea karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-legepeko langile finkoko izendapenik FEM kategorian. Familiakoa eta komunitarioa, izendapen edo kontratu horrekin zerikusia duen administrazio-egoera edozein dela ere.

- Zuzendaritza Nagusiari atxikita egotea langile finko gisa, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.

- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeetako langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.





- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea eta iragarritako azken EPEan kategoria honen oinarrietan ezarritako gainerako titulazio-eskakizunak betetzea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile edo lan-legepeko kontratudun finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Familiako eta Komunitateko FEM kategorian.

- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea norberak lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundean.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu)
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat

Lan-esperientzia, kategoriaren azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera.
(gehienez, 50 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

ESKABIDEAK AURKEZTEA

Interesdunek Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin, curriculum vitae dokumentuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenez izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoa egiaztatzeko egokitutako jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliiodunekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
3. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

EUSKARAREN EZAGUTZA

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

BALORAZIO BATZORDEA

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo haren ordezkaria buru dela, eta honako hauek osatuko dute: Kalitateko zuzendariordeak, Atal Sanitarioko buruak eta Horniketako Zerbitzu Korporatiboko buruak (azken horrek idazkari-lanak egingo ditu).

HAUTAKETA-PROZEDURA

Interesdunek epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Balorazio Batzordeak. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak esleitu gabe utzi ahal izango du lanpostua, izangaiek ez badituzte betetzen eskatzen diren baldintzak.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakiok Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarik, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 4a.



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

Luisa Larrauri Ereñozaga